

Bizigiro

Musikaren koktela

Asteburuan Euskal Herriko eta atzerriko musika taldeen topaleku izanen da Musikaren Eguna.

Euskal kantaren egoera aztertuko dute



Iker Tubia

Informazio osagarria

EGITARAUA



Kalean animazioa eta kontzertuak izanen dira gaur eta bihar Urdiñarbeko Musikaren Egunean. GAIZKA IROZ

2015eko maiatzak 23



Hango eta hemengo doinuen melodia du Urdiñarbeko Musikaren Egunak. Izan ere, hainbat kulturatako musikak elkartu eta elkar ezagutzea baitu helburu haren antolatzaileak, Bil Xokoa elkarteak. Ez da egun bateko kontua, baina. Atzo hasi ziren jarduerak, eta igandera arte iraunen dute. Musikari loturiko ekitaldiak antolatu dituzte, baina dena ez dira kontzertuak izanen, hitzaldia eta eztabaida ere izanen baitira. Aurten, gainera, Zuberoan hainbati kezka sortzen dion gai batek hartuko du nagusitasuna: kantuaren egoerak.

Hain zuzen ere, gaurkoa euskal kantari eskainitako eguna izanen da. Goizean arituko dira horren inguruan solasean, eta Jean Mixel Bedaxagar, Niko Etxart eta Jean Bordaxarrek bertan parte hartuko dute, besteak beste. «Zer da kantoia egun? Aitak erraten duen bezala, jende gutiago da orain ostatuetan kantan ari, eta jende zenbaitek ezagutzen ditu euskal kantak, baina hizkuntza batere ez», esan du Ddiddue Etxeberri antolatzaileetako batek.

Eztabaidaz gainera, Maider Bedaxagarrek bere ikerketa lana aurkeztuko du. Alemanian duela ehun urte gerrako euskal presoek grabatutako kantuak aztertu ditu. Sü Aiziako kanta funtsari buruz ere arituko dira.

Goizean solastatzeko parada izanen da, eta arratsaldean kantatzekoa. Lehenbizi haur kantuen txapelketa egingen dute, eta, ondoren, Kantorroaz jarduera: kantuan dakitenendako zein ez dakitenendako euskal kantuen trukea izanen da. Gibelurdinek taldearen kontzertuarekin bukatuko da eguna.

Igandeak bai, igandeak ofizialki hartuko du Musikaren Eguna izena. Afrikako eta Euskal Herriko dantzak uztartzen dituen sormen lana izanen da ikusgai goizean, kaleko animazioa gero, eta arratsaldean kontzertu nagusiak. Euskal taldeez gainera, Okzitania, Grezia eta Frantziako taldeak izanen dira, eta askotariko estiloak: esperimentalak, rocka, jazzak, tradizionalak eta abar.

Beti ekartzen dituzte kanpoko taldeak. «Taldea ezezagun tipi zenbait ezagutarazteko egiten dugu, eta haiek Euskal Herrian momentu gozo bat izateko ere bai», esan du Etxeberriak. Hala ere, nabarmendu du euskarak garrantzi handia duela ekitaldi hau prestatzerakoan. Gainera, elkartzeko eta eztabaidan sakontzeko egunak izanen direla aurreikusi du antolatzaileak. «Kanpoan den jendearekin harremanak sortzen dira egun horretan, eta denok kantatuko dugu elkarrekin».

Musikaren Eguna

Gaur eta bihar, Urdiñarben (Zuberoa).

Gehien irakurriak

1 Ehunka lagun Arrasaten, euskal presoek eskubideen aldeko bilkuran

IÑAKI AGIRRE

2 Praga, 'mon amour'

JOSE MARI PASTOR

3 Besarkada handi bat zinemari

MIKEL LIZARRALDE

4 Alfonso Sastre hil da

IÑIGO ASTIZ

5 Euskal Herriko trenbide sare osoa, lehen aldiz plano bakar batean

JONE ARRUBARRENA